



INSTITUTO CHINO DE BILBAO
BILBOKO TXINATAR INSTITUTUA

Pekinera bidaiatzeko beka bat lortu dute Txinera titulu ofizial bat atera duten zazpi euskal gaztek

*Txinako hiriburuan dagoen hizkuntza eta kulturaren espezializatutako heziketa-zentro batean egonaldi bat egingo dute

*Abenduaren 27a eta urtarrilaren 7a bitartean egongo dira Pekinen

*Munduko lurralde ezberdinetako beste gazteekin bizi izango dira, kultura txinatarrekin zerikusia duten zenbait jardueretan parte hartu eta inguruko toki adierazgarrienak ezagutuko dituzte

Zazpi euskal gaztek abenduan Pekinera bidaiatuko dute txinerazko jakite-maila egiaztatzen duen titulu ofizial bat atera ondoren lortu dituzten beka batzuei esker. Abenduaren 27a eta urtarrilaren 7a bitartean txinera-klaseak jasoko dituzte, zenbait jardura kulturaletan parte hartuko dute eta Txinako Harresi Handia, Zeruko Tenplua edo Debekatutako Hiria bezalako toki adierazgarriak bisitatuko dituzte.

Gobernu txinatarrek HANBAN-en (Konfuzio Institutuen Bulego Orokorraren) bidez emandako beka dira horiek eta Gipuzkoako Txinatar Institutua eta Bilboko Txinatar Institutua izan dira bideratu dituztenak. Horiei esker zazpi euskal gazteek hamar egun pasa ahal izango dituzte Beijing Chinese Language and Culture College-en, hizkuntza eta kulturaren espezializatutako heziketa zentro batean. Bertan, gazteek txinera ikasiko dute adin eta mailaren arabera banatutako taldeetan. Borroka-arteak ere praktikatu dituzte eta kaligrafia, sukaldaritza edo Pekin Operako mozorro tailerretan parte hartuko dute.

Egonaldi horretan euskaldunak munduko beste lurralde ezberdinetako gazteekin biziko dira eta esperientziak partekatuko dituzte. Hortaz, hizkuntza eta kultura txinatarrean sakontzeaz gain, kultur aniztasunaren ikuspegitik esperientzia guztiz aberasgarria bizi ahal izango dute. Oraingo honetan, Gipuzkoako Txinatar Institutua eta Bilboko Txinatar Institutua Estatu mailan banatu diren 10 beka bakoitzeko 2 lortu dute, urte hauetan Txinako kultura eta hizkuntza irakasten eta zabaltzen izandako emaitza bikainei esker.

Joan den abuztuan beste bost euskal gaztek antzeko esperientzia bizi izan zuten, kasu horretan ere txinerako azterketa ofizialetan ateratako emaitzei esker. Txinatar Institutua zentro aztertzaile ofiziala da eta antolatuko duen hurrengo deialdia abenduaren 6an izango da Bilboko Euskalduna Jauregian. Aurten azterketa horietako aurreko deialdietara aurkeztu diren ikasleen %96k gainditu ditu probak.